

# 1980 hamarkadako euskararen egoerari buruzko diskurtsoa

**Jon Artza Bikandi**

*Soziologian lizentziatua (UPV/ EHU).*

*Euskaltzaindiko Argitalpen zerbitzuko eragilea*

jonartza@gmail.com

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

**Laburpena.** Euskal Herrian, Euskararen Legeak eta hizkuntza politikak indarrean jarri zirela 30 urte pasa dira. Beraz, horien bilakaera eta emaitzak aztertzeke tenorea iritsi da. Horretarako zer espero zen eta zer lortu den kidekatu behar dira. Baina aurreikuspenak bete diren aztertu aurretik, lehenbizi eta zehaztasunarekin, 1980ko hamarkadako iragarpenak nolakoak ziren jakin beharko genuke. Nolakoak zen euskararen normalizazioaren gaineko diskurtsoa urte haietan? Galdera horri erantzutea da artikulua muina. • **Hitz gakoak:** 1980ko hamarkada, euskararen normalizazioa, hizkuntza-politika, Argia, Euskararen Legeak.

**Abstract.** Thirty years have transpired since the Basque Language Laws were enacted and language policy was implemented in the Basque Country. The time has therefore come to analyse the evolution and outcomes of these steps. In order to do so, we must compare the expected results with those that have actually been achieved. But before determining whether or not the forecasts were accurate, we must first understand what exactly these measures were expected to achieve in the 1980s. What was the discourse regarding the Basque normalisation process like during that decade? That is the question this paper aims to answer. • **Key words:** 1980s, Basque normalisation, language policy, Argia, Basque Language Laws.

## 1. SARRERA

Euskararen bilakaera soziolinguistikoak gogoeta aroa bizi du azken urteotan. Aditu askoren ustez ziklo bat itxi da. Labur-labur esateko, Hego Euskal Herriaren egituratze politiko-administratibo berria ezarria dago jada, eta euskalgintzaren aldeko herri-mugimenduek indarra galdu dute aspaldian. Gizartea aldatu egin da. Aldarrikapen kolektiboak ahulduz doaz eta indibidualismoa indartzen ari da. Ziklo baten amaierara iritsi eta hurrengoa zein izan daitekeen argi ikusten ez dugun honetan, zera planteatzen ari gara: Nolakoa izan da bilakaera? 1980ko urteetan iragartzen genuen bezain ona? Okerragoa? Ala espero genuena?

Oro har, esango genuke iritziak nahiko ezkorrak direla. Angela Rico AEK-ko irakasleak zera dio: “Ezagutza datuak asko aldatu dira azken hamarkada honetan (...) esango nuke euskaraz hitz egitea, eta batez ere, euskaraz bizitzea, ez dagoela jendearen lehentasunen artean...” Jon Sarasuak botilaren metafora erabiliko du. Esaten du kontua ez dela botila erdi hutsik edo erdi beteta dagoen. Aldartearen arabera, erdi-hutsik edo erdi-beteta ikus dezakegu, baina gauza ziurra da zuloa duela, eta betetzen ez badugu hustu egingo dela. Pruden Gartzia, euskaltzain urgazlea, ezkorrago ageri zaigu: “Eta ez, ez gaitezen hasi botila erdi hutsik edo erdi beteta ikus daitekeela esaten. Duela hamar urte hori egia zen, apika, gaur egun ez. (...) Gaur egun euskarak ez du aurrera egiten eta, laster, ziur aski, atzeraka hasiko da.”

Garikoitz Goikoetxeak *Euskara irabazteko bidean* liburua aurkeztu zuen 2016 bukaeran. Izenburuak baikortasunerako bidea erakusten badu ere, eta horrelakoa da egilearen ikuspegia, liburuaren baitan ageri diren testigantza ia guztiek joera ezkor garbia adierazten dute.

Horiek horrela, ematen du duela hamarkada batzuk genituen esperantzak ez direla gauzatu. Gogoeta horrekin neurri batean ados egon bagintezke ere, komeni da gogoratzea euskararen gaineko iritziak betidanik izan direla nahiko ezkorrak. XIX. mende bukaeran, Unamuno idazle bilbotar ospetsuak euskararen heriotza iragarri zuen. Unamuno ez omen zen oso euskaltzalea, bai ordea Julien Vinson eta Wilhelm Humboldt euskalariak eta iritzi berekoak ziren. XX. mendean, Seber Altube euskaltzain arrasatearra ere penatan zebilen, Euskal Pizkundea, akaso, euskararentzat beranduegi iritsi zela esan zuenean.

Beste hizkuntza gutxituei ere iragarpen apokaliptikoak ez zaizkie arrotzak. Adibide gisa, har dezagun Irlandako kasua. Irlandararen aldeko

---

**Ziklo baten  
amaierara iritsi  
eta hurrengoa  
zein izan  
daitekeen argi  
ikusten ez dugun  
honetan, zera  
planteatzen ari  
gara: Nolakoa  
izan da  
bilakaera?  
1980ko urteetan  
iragartzen  
genuen bezain  
ona? Okerragoa?  
Ala espero  
genuena?**

**Neurri batean, hizkuntza gutxituak berarekin dakar pesimismorako joera. Kasu gehienetan, galera oso nabarmena pairatu duen hizkuntza da, bizimodu modernoan eta sistema ekonomiko hegemonikoari txertatzeko arazoak izan ditu eta botere politikotik oso aldendua dago.**

figura klasikoa da Daniel O'Connell. Hizkuntza gaelikoa erabat menperatzeaz gain, bertako ahozko tradizioa biltzen lan ikaragarria egin zuen. Bestalde, irlandarren kausaren defendatzaile sutsua izan zen. Haren garaian independentismoa ez zegoen oraindik behar bezala mamitua, beraz autonomiaren aldeko proto-abertzaletzat har dezakegu. Harrigarria bada ere, O'Connellrek ez zion bere ama-hizkuntzari etorkizunik ikusten, eta nolabait esateko, heriotza lasaia iragartzen zion. Hargatik, gerora indartu ziren independentziaren eta irlandararen biziberritzearen aldeko askok traidoretzat hartu zuten.

Neurri batean, hizkuntza gutxituak berarekin dakar pesimismorako joera. Kasu gehienetan, galera oso nabarmena pairatu duen hizkuntza da, bizimodu modernoan eta sistema ekonomiko hegemonikoari txertatzeko arazoak izan ditu eta botere politikotik oso aldendua dago. Euskara ez da salbuespena. Hala ere, beste hizkuntza gutxitu batzuek baino argi gehiago erakusten du. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailordetzak emandako datuen arabera, 1991tik hona, euskaldunen kopurua % 24,1etik % 33,9ra igo da Euskal Autonomia Erkidegoan. Erabilerari dagokionez, gaur egun euskara asko edo gutxi erabiltzen dutenak % 31 dira, eta 1991n, % 23. Zaila da datu horiek beste inongo hizkuntza gutxitutan aurkitzea. Hebraieraren adibidea aipatu izan da, baina ez da konparaziorako baliagarri. Israelgo Estatu munduko juduak lurralde jakin batean elkarrekin bizitzeko sortu zen. Judu horiek guztiak hebraiera mintzatuz bizi nahi zuten, hizkuntza bazekiten edo ikasteko borondate irmoa zuten. Euskaldunon egoera bestelakoa da: ez dugu estatu propiorik eta gure hizkuntza-politika garatzeko botere-kuota mugatua daukagu. Kontuz, hala ere, euskara normalizatzeko politika ausartegiak aurrera eramatearekin, ea ez ote diren hiritarrak haserretuko, tartean abertzale zenbait.

Pentsa dezakegu datuak ez daudela gaizki eta okerrera ez dugula egin, nahiz eta uste zen tamainako aurrerapenik ere ez den eman. Esaera zaharrak dioten bezala: usteak erdiak ustel. Hargatik, ondorengo galdera egitea oso zentzuzkoa iruditzen zaigu: duela 30-40 urte zer espero genuen? Garai hartako diskurtsoaren nondik norakoak azaltzea da lan honen gakoa. Asmo horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea (1982) eta Nafarroako Euskararen Legea (1986) hartu ditugu ardatz. Bi lege horien ondorioz, lehenbiziko aldiz, euskara ofiziala izango da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako iparraldean; Nafarroako erdialdean (eremu mistoan) sasi ofiziala izango da eta gainerako lurraldeetan ez da ofiziala izango. Ikasleek sare publikoan euskaraz ikasi ahal izango dute, administrazioak euskaldunen eskubideak bermatuko

ditu eta hein berean euskalgintzaren adarrak (euskaltegiak, ikastolak, sentsibilizazio taldeak eta abar) euskara sustatzen saiatuko dira.

1980ko urteetan ematen zuen baikorrak izateko arrazoiak bazirela. Aro berri hartan, nolakoa zen euskararen normalizazioaren gaineko diskurtsoa? Galdera horri erantzutea da proiektuaren muina.

1982, 1983, 1986 eta 1987ko *Argia* astekariko zenbaki guztiak aztertu ditugu. Jakina, lau urte horiek apropos hautatuak izan dira, arestian aipatu dudan gisan, garai hartakoak baitira Euskararen Legeak. Lege horiek zer balorazio eta oihartzun izan zuten ikertu nahi izan dugu. Guztira, ehun iritzitik gora bildu ditugu. Hori egin ondoren, datuak behatu eta, bukatzeko, hainbat ondorio aurkeztu. Jarraian, garai hartako diskurtsoa eta gaur egungoa konparatzen saiatu gara. Hurrengo orrialdeetan, informazio zehatzagoa aurkituko baduzue ere, dagoeneko aurreratzen dugu konklusioa oso argia dela: 80 hamarkadako urte horietan ere, euskararen normalizaziorako diskurtsoa, oro har, ezkorra zen. Askok garai haiek idealizatzeko joera dugu. Hala ere, irmo esan dezakegu gaur egun euskalgintzak dituen kezka eta beldur gehienak duela hogeita hamar urte zituen berberak zirela.

## 2. LAN-PROZEDURA

Azterketa hau burutzeko orduan, ez dugu aurrez definituriko metodologia zehatzik jarraitu. Erabili dugun lan-prozedura intuitibotzat har dezakegu eta ondorengo oinarri hauek dauzka:

Lehenbizi, denboraren aldagaia definitu dugu. Hautatu ditudan urteak 1982/83 eta 1986/87 izan dira. Hautaketaren arrazoi oso erraza da: 1982an, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) “Euskara Normalizatzeko Legea” onartu zen, eta 1986an, Nafarroan “Euskararen Legea”. Urte zehatz horiek eta horien segidakoak ere aukeratu ditut, batez ere, legeak izan zuen oihartzuna denbora tarte luzeagoan aztertu ahal izateko.

Ikertu duguna garai horietan euskararen egoera soziolinguistikoan zegoen diskurtsoa da. Esan gabe doa, euskararen gainean, lau urte hauetan (1982/83 – 1986/87) milaka iritzi aurki ditzakegula, beraz, galbahe lana egitea ezinbestekoa da. Batez ere, hizkuntzaren egoera ahalik eta modu orokorrean deskribatzen zuten iritzietan jarri dugu arreta. Esan nahi dugu hizkuntzaren atal jakin batzuei -demagun gramatikari, terminologiari edo besteren bati- barik balorazio orokorreari eman diegula lehen-tasuna. Halaber, euskarak etorkizunean izan zezakeen bilakaeraren gaineko usteak edo aurreikuspenak oso kontuan izan ditugu.

---

**1980ko urteetan ematen zuen baikorrak izateko arrazoiak bazirela. Aro berri hartan, nolakoa zen euskararen normalizazioaren gaineko diskurtsoa? Galdera horri erantzutea da proiektuaren muina.**

**Irmo esan dezakegu gaur egun euskalgintzak dituen kezka eta beldur gehienak duela hogeita hamar urte zituen berberak zirela.**

**Informazio hau guztia Argia astekaritik bildu dugu. Besteak beste, garai hartan albiste soziolinguistikoak jasotzeko argitalpen gehiegi ez zegoelako. Horrekin batera, informazioa aldizkari dibulgagarrietatik jaso nahi izan dugu, eta ondorioz, aldizkari zientifiko eta espezializatuak ez ditugu aintzat hartu.**

Iritzi horiek guztiak bost kategoriatan sailkatu ditugu: *oso ezkorra, ezkorra, neutroa, baikorra* eta *oso baikorra*. Jakina, iritzi horiek sailkatzerakoan, gure interpretazio subjektiboaz baliatu gara. Egia da diskurtso batzuk oso erraz sailka daitezkeela, hain zuzen ere, egileak oso argi lerratzen zirelako. Horrelako kasuetan, zenbait hitz-gako jaso ditugu gure erabakiaren sostengu bezala: galbidea, hileta, salbazioa, desagerpena, pesimista, irabazi, etorkizuna gurea da, oso baikorra eta abar. Beste batzuetan, aldiz, egileek hitz potoloak erabili ez arren, oso joera nabaria zuten. Badira, halaber, ironia eta hitz-jokoak erabiltzen zituztenak. Horietan, erne eta zoli aritu behar izan gara. Iritzi oso ezkortzat jaso ditugu hizkuntzaren desagerpena edo antzeko iragarpenak adierazten zituztenak. Soilik ezkortzat, euskarari etorkizun iluna ikusten ziotenak, nahiz eta desagerpena edo antzeko egoerarik ez zuten aurreikusten. Nolabait esateko, euskararen minorizazio egoera areagotuz joango zela esaten zutenak. Neutroa izan daiteke, agian, ulertarazteko kategoria zailena. Bertan bildu ditugu alde argilunak nabarmentzen zituzten iritziak. Alde batetik datu positiboak sumatu, baina bestetik hodei beltzak ere ikusten zituztenak. Iritzi horien kopurua nahiko esanguratsua zen. Baikorren artean sailkatu ditugu euskarak normalizazioaren bidean aurre egingo zuela adierazten zutenak, eta oso baikorren artean sailkatu nahi izan ditugu euskararen normalizazioa gauza egintzat bezala aurkezten zutenak. Desio hutsa izan da, oso baikorrak ziren baieztapenik ez baititugu inon aurkitu.

Informazio hau guztia *Argia* izan ere, astekaritik bildu dugu. Besteak beste, garai hartan albiste soziolinguistikoak jasotzeko argitalpen gehiegi ez zegoelako. Horrekin batera, informazioa aldizkari dibulgagarrietatik jaso nahi izan dugu, eta ondorioz, aldizkari zientifiko eta espezializatuak ez ditugu aintzat hartu, *Jakin* edo *Eusker*a esaterako. Dibulgagarrien artean non aukeratu bazegoen: HABEko aldizkaria, *Hika* eta beste batzuk. Hala ere, *Argia* aukeratu dugu bi arrazoi nagusigatik: arestian azaldutako ideia-ildotik, nolabait esateko, iritzi orokorrakoak edo arruntakoak jaso nahi izan ditugulako; eta bestalde, uste dugulako astekari horrek iritzi esparru zabalagoa edo anitzagoa eskaintzen duela.

### 3. DATUEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

Azterketaren atal honetan, batez ere, datuak erakutsiko ditugu. Nolabait esateko, egindako azterketa, bilketa eta sailkapenak eman diguten argazkia aurkeztuko dugu. Argazki horren gainean, momentuz, ez dugu garaiko euskararen inguruko diskurtsorik eraikiko. Are gehiago, ez

dugu garai hartako eta gaur eguneko hizkuntzaren normalizazioaren gaineko diskurtsoen arteko konparaketarik egingo. Hori guztia hurrengo atalerako utziko dugu. Laugarren kapituluan 80 hamarkadako diskurtsoa biltzen saiatuko gara, eta bostgarrenean orduko eta gaur eguneko egoerak konparatu eta ondorioak ateratzen. Goazen orain datuetara.

*Argia* astekariko lau urteetako (1982, 1983, 1986, 1987) zenbaki guztiak irakurri ditugu. Inor ez da harrituko, euskararen egoerari buruz idatzi pila aurkitu dugula esaten badugu. Ez dira hainbeste hizkuntzaren normalizazioaren gainean iritzi jakin bat agertzen dutenak. Are gutxiago, etorkizun hurbilean euskarak zer bilakaera izango duen aurreikustera ausartzen direnak. Zehatz zenbatuta 109 idatzizko aipamen jaso ditugu. Gehienak esaldi edo zutabe osoak dira, gutxi batzuk, aldiz, zutabe bereko edo desberdinetako esaldiak lotuz osatu ditugunak dira.

Aurreko kapituluan esan bezala, iritziak bost kategoriatan sailkatu ditugu: oso baikorrak, baikorrak, neutroak, ezkorrak eta oso ezkorrak. Halaber, sailkapena zeren arabera egin dugun ere aurrez azaldua dago. Kategoriazio horrek honelako emaitzak eman ditu:

**1. taula. Argia astekarian bildutako euskararen inguruko iritziak.**

IRITZI MOTA	KOPURUA	%
Oso baikorra	0	% 0
Baikorra	17	% 16
Neutroa	18	% 16,5
Ezkorra	69	% 63
Oso ezkorra	5	% 4,5
GUZTIRA	109	% 100

Iturria: *Argia* astekarian (1982, 1983, 1986 eta 1987 urteetan egileak jaso eta interpretatutako testuak).

Iritziak sailkatzerako orduan testu osoa irakurri eta ebaluatu dugu. Horretaz gain, badira hitz-gakoak kontsidera ditzakegunak. Katgoria desberdinetan honako hauek aurkitu eta jaso ditugu:

---

**Argia astekariko lau urteetako (1982, 1983, 1986, 1987) zenbaki guztiak irakurri ditugu. Inor ez da harrituko, euskararen egoerari buruz idatzi pila aurkitu dugula esaten badugu. Ez dira hainbeste hizkuntzaren normalizazioaren gainean iritzi jakin bat agertzen dutenak. Are gutxiago, etorkizun hurbilean euskarak zer bilakaera izango duen aurreikustera ausartzen direnak.**

**2. taula. Iritziak eraikitze erabilitako hitz gakoak.**

Baikorra	lorpen, indarra, salbatu.
Neutroa	salbatu, tristea, gutxi, berandu, alarma, gutxitu.
Ezkorra	oso txarra, minoritarioa, hilda, porrota, baztertu, urria, pobrea, heriotzerako arriskua, gutxi, problema, galtzen, hiltzorian, hustutzea, museotarako, pesimista, atzeraka, katastrofismoa, momentu kritikoa.
Oso ezkorra	Genozidio, galduko, galmendia, galtzear, agonia, hiltzear.

Iturria: *Argia* astekarian (1982, 1983, 1986 eta 1987 urteetan egileak jaso eta interpretatutako testuak).

Aldagai bi jarri dituguharremetan: alde batetik, urteak, eta bestetik, iritzi mota. Urteak aldiz, hitzak bereiz bi multzotan sailkatu ditugu: 1982-83 lehenbizi, beraz, EAEn Euskararen Legea abian jartzen diren urteak. Jarraian, 1986-87, Nafarroan Euskararen Legea onartzen da, eta aurrez aipaturiko legeak urte batzuk daramatza indarrean. Ondorioz, balorazio moduko bat egiteko denbora pasa da. Egiari zor ez da alde handirik nabaritzen bi aldi desberdin horien artean. Aipagarria den bakarra iritzi neutroen bilakaera da. Laurogeigarren hamarkadaren hasieran iritzi neutro gehiago zegoen. Gure interpretazioa da zalantza gehiago zegoela, alegia, etorkizun hurbilak zer eman zezakeen ezin zitekeen ziurtasun askorekin aurreikusi. Baina, urte batzuk pasa ahala, badirudi zalantza batzuk argitu egin zirela eta iritziak sendoagoak, irmoagoak bilakatu. Ikus ditzagun datuak:

**3. taula. Argia astekarian bildutako euskararen inguruko iritzi-mota 1982-1983/1986-1987 epeen arabera.**

IRITZI MOTA	1982-1983		1986-1987	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%
Oso baikorra	0	% 0	0	% 0
Baikorra	8	% 14,5	9	% 17
Neutroa	11	% 20	7	% 13
Ezkorra	33	% 60	36	% 66
Oso ezkorra	3	% 5,5	2	% 4
GUZTIRA	55	% 100	54	% 100

Iturria: *Argia* astekaria 1982, 1983, 1986 eta 1987 urteak.

Datu horiek ikusi ondoren ez da alde handirik nabaritzen bi aldi haue-tan. Agian, gutxi bada ere, proportzioan apur bat handiagoa litzateke ikusmolde positiboa 1986/87 urteetan. Tamalez, ez dugu uste ondorio-rik ateratzeko kopuru esanguratsua denik. Aitzitik, antzeko egoeran geun-den seinaleztat interpretatzeko datuak lirateke.

Iritzi emaileak nortzuk izan diren aztertu ondoren, honako datu hauek atera zaizkigu:

- Guztira 78 egile desberdin: idazleak, kazetariak, soziologoak, soziolinguistak, kazetariak, hizkuntza teknikariak, politikariak, garai hartan euskaltzain zirenak, gerora euskaltzain izendatu zituztenak, euskaltzale ezagunak, hizkuntza-teknikariak, elizgizonak.
- Ia guztiak euskaldunak eta euskal herritarrak. Badira gutxi batzuk euskal herritarrak izanik euskaldunak ez direnak, eta soziolinguista irlandar bat da atzerritar bakarra.
- Adinaren ikuspegitik aniztasuna nagusi dela esango nuke. Haur eta neraberik ez, eta gazteak, helduak eta adindunak kopuru bere-tsuari aurki ditzakegu.
- Generoaren ikuspegitik ez dago aniztasunik. Iritzi eta azterketa ia denak gizonen eginak dira. Datu zehatzak emanda, bi emakume-ren iritzia baino ez dugu jaso. Horretaz gain, badira ezizenarekin sinatzen duten egile batzuk eta horietako zenbait emakumeak izan daitezke. Benetan deigarri egin zaigu emakumeen presentzia urria, nahiz eta urte horietan hain harrigarria ere ez den. Adibide gisa, lehen euskaltzain oso emakumea, Miren Azkarate, 1992an izendatua izan zen.

Aztertu dugu halaber iritziak, usteak, aurreikuspenak, gogoetak eta abar zer formatutan aurkeztu diren. Ondorengo taula honetan bildu dugu informazioa:

**4. taula. Iritziak jaso diren testu-motak.**

IRITZIA NONDIK JASO DEN	KOPURUA
Beste hedabideei adierazpenak	4
Bertsoak	3
Iritzi artikulua	39
Iritzi laburra	3
Elkarrizketa	46
Erreportaia	10
Editoriala	2
Olerkia	3

Iturria: *Argia* astekaria 1982, 1983, 1986, 1987.

**Laurogeigarren hamarkadaren hasieran iritzi neutro gehiago zegoen. Gure interpretazioa da zalantza gehiago zegoela, alegia, etorkizun hurbilak zer eman zezakeen ezin zitekeen ziurtasun askorekin aurreikusi. Baina, urte batzuk pasa ahala, badirudi zalantza batzuk argitu egin zirela eta iritziak sendoagoak, irmoagoak bilakatu.**



**80**  
**hamarkadaren**  
**hasiera arte ez**  
**dago datu**  
**soziolinguistiko**  
**fidagarririk.**  
**Ordura arteko**  
**iritziak ez**  
**leudeke datu**  
**enpirikoetan**  
**oinarrituta. Hala**  
**ere, kalean**  
**entzuten zutenaz**  
**baliatuz hainbat**  
**hizkuntzalarik**  
**eta euskaltzaleek**  
**beraien ideiak**  
**eta iritziak**  
**plazaratzen**  
**zituzten.**

#### 4. AZTERKETA KUALITATIBOA: ZEIN ZEN 80 URTEETAN EUSKARAREN EGOERARI BURUZ ZEGOEN DISKURTSOA?

**I**  
Zalantza gutxi. 80 urteetan euskararen normalizazioaren gainean diskurtso ezkorra zen nagusi. Azterketa honetaz harago, aurreko hamarkadetan murgildu eta ikertzen hasiko bagina, ziur naiz antzeko ondorioak aterako genituzkeela. Kontua da lehenengo azterketa soziolinguistikoak, Siadecok eginak, 70 urteen hondarrekoak direla. Are gehiago, 80 hamarkadaren hasiera arte ez dago datu soziolinguistiko fidagarririk. Ordura arteko iritziak ez leudeke datu enpirikoetan oinarrituta. Hala ere, kalean entzuten zutenaz baliatuz hainbat hizkuntzalarik eta euskaltzaleek beraien ideiak eta iritziak plazaratzen zituzten. Duela gutxi Arratiako abeslari batek honako anekdota kontatu zigun:

Nik umetan Durungon ikasi nuen, Jesuitetan interno. Sasoi hartan (60 hamarkadako bigarren erdialdea) Durungon euskararen egoerie penagarrixo zan. Pentsau! Behin Arratiko zenbait ikasle etxera bueltetako autobuse hartzeko bidien gauzela, agure bat hurbildu eta txakur txiki bat (dirue) emon dozkun. Euskeraz genbizelako zan.

Gaur egun, Durangon, horrelakorik imajinatzea zaila egiten zaigu. Euskara, ezbairik gabe, asko entzuten da. Nahiko den ala ez beste kontu bat da, baina agure hura biziko balitz, xoxekin zuhurrago jokatu beharko luke.

Anekdota horrekin adierazi nahi genuen hizkuntza gutxitu batek bere erraietan dakarrela pesimismoa, bestela ez litzatekeela gutxitua izango. Hizkuntza bat, nahiz eta hitzun asko ez izan, hurrengo belaunaldietara oker handirik gabe transmititzen bada, bere espazio sozio-funtzionalak irauten badu, ez da gutxitua. Alarmak ez dira piztu eta ez dago aparteko gogoetarik, ez txarrik ez onik. Krisiak pizten ditu jendearen kezka eta arreta. Gure kasuan krisia edo gainbehera oso sakona izan da. Hargatik, ematen du luze joko duela normalizazioaren bideak. Bide hori bukatu arte nekez gailenduko da diskurtso baikorrik.

Gaur egun euskalgintzan bolo-bolo dabilen diskurtsoa labur-labur definitu beharko bagenu, zera esango genuke: Euskarak egoera larria bizi du. Euskara modu naturalean, berez, ateratzen zaien herritarrak gero eta gutxiago dira eta arnaguneetan pitzadurak sortzen hasiak dira. Hirietan egoera pittin bat hobetuz badoa ere, egiten den euskara oso txarra da eta euskaldun gehienontzako euskara ez da lehentasuna. Paradigma berri bat behar dugu. Bestalde, azkenengo urteetan entzun izan ditugun iritzi askok orain-

goa eta aurrekoa konparatzen dute. Esaten dute 80 urteetan bazegoela ilusioa eta beste etorkizun hobea bat espero zitekeela. Aitzitik, garai hartako hausnarketak aztertu ditugunean aurreko baieztapenen zuzentasun ezaz ohartu gara. 80 urteetan ere euskararen etorkizunak arreta deitzen zion jendartea, badirudi, interesatua baino kezkatuagoa zegoela. Ez ziren baikorrak. Oro har, uste zuten euskaren normalizazioak bide aldapatsua zuela aurretik. Ez zeukaten bide horretan arrakasta izango zuten konbenzimendu osoa; hala ere, bidea egin behar zela zioten.

Har ditzagun adibide batzuk. Lehenengo biak, azken urte hauetan plazaraturikoak, euskalgintzan erreferentziak iruditu zaizkigun bi egilerenak dira. Jarraian beste hiru aipu aurkeztuko ditugu, gure azterketa honetan oso adierazgarriak iruditu zaizkigunak:

Malda dator. Erronka. Bide luzea. Baina aurrera egiteko baldintza hobeak ditu euskarak. Baita euskalgintzak ere. Malda. Erronka. Bide bat dugu egiteko. Irabazteko. (Goikoetxea 2016: 6)

Botila erdi betearen metaforak ez du ondo biltzen egoera. Kontua ez da soilik aukeratzea erdi beteta edo erdi-hutsik ikusi nahi dugun euskararen garapenaren botila. Botila sorgin honetan, bete dena asko da, eta aldi berean, falta dena, handia. Botilaren gerria uste genuena baino askoz zabalagoa izan. Oso ondo non ez dakigula, gainera, botilak zuloak ditu, betetze-erritmo jakin batetik behera ibiliz gero gehiago husteru egiten dutenak. (Sarasua 2013: 106)

Ikus ditzagun orain guk jasotako hiru aipamen:

Norbaitek galdetuko balu, eta euskara salbatuko al da? Erantzun posible bakarra da: Aizu, ni euskaltzalea naiz eta apustu bat egin dut, atera behar duela aurrera. Bitarteko guztiak jarriko ditut... baina garantiarik ez dago. (Andoni Sagarna, *Argia* 1986, 1.090 zbk.)

Euskarari dagokionez esan daiteke, alde batetik, ez dela inoiz galtzeko orain baino arrisku handiagoan: ordezkapen-prozesuan ematen diren sintoma gehienak ditu, hizkuntza lurralde konpakturik gabe geratzen ari da, erabilpen soziala nabarmenki murriztuz doa, familia-bideko transmisioak huts egiten du (...) Bestalde, esan behar da, baita ere, ez dela inoiz gaur adina indar erabili edo mobilizatu euskararen alde: batez ere euskararen irakaskuntzan (haur eta helduen, liburugintzan, hiztegigintzan... giza kapital handia dago lanean. (...)) aurrera ala atzera? Adibide bat jarri esango nuke: amildegiaren goitik behera abiada bizia zeraman gurdia -euskara- gelditzen edo frenatzen hastea lortu da. Baina gurdia hori aldapen behetik gora eraman behar da gailurrera -euskararen normalizazioa-, eta hortik urruti gaude. (Iñaki Larrañaga, *Argia* 1987, 1.153 zbk.)

---

**Esaten dute 80 urteetan bazegoela ilusioa eta beste etorkizun hobea bat espero zitekeela. Aitzitik, garai hartako hausnarketak aztertu ditugunean aurreko baieztapenen zuzentasun ezaz ohartu gara. 80 urteetan ere euskararen etorkizunak arreta deitzen zion jendartea, badirudi, interesatua baino kezkatuagoa zegoela. Ez ziren baikorrak.**

**Ematen du  
euskararen  
normalizazioaren  
ikuspegitik ere  
80 urteetako  
garai hura  
idealizatzeko  
joera dagoela.  
Bestalde, bitxia  
da konprobatzea  
orain erabiltzen  
diren argudio  
berak edo oso  
antzekoak  
baliatzen zirela  
garai hartan.**

Apustua hemen zeukeagu eta apustuan parte hartzen dutenek beti ez ditek seguritate irabaziko dutenik. Baina apustua jokatu egin behar dik. Gu irabazteko esperantzarekin jokatzek ari gaituk (...) Etorbizuna? Optimista. Errealitatea? Iluna (...) Etorbizuna arrazoiarena duk eta euskararen kontrako arrazoirik ez zegok. Euskara atera behar diagu aurrera. Behintzat gure ahaleginen faltaz ez dadila hil. (Koldo Tapia, *Argia* 1983, 983 zbk.)

Gure aburuz oso antzeko diskurtsoak dira, eta, labur esanda, hiru ideia nagusi mamitzen dituzte:

1. Euskararen egoera ez da ona, zaila da.
2. Bidea/Apustua egin behar da.
3. Helmugara iritsiko garen/Apustua irabaziko dugun bermerik ez dago.

Beraz, ematen du euskararen normalizazioaren ikuspegitik ere 80 urteetako garai hura idealizatzeko joera dagoela. Bestalde, bitxia da konprobatzea orain erabiltzen diren argudio berak edo oso antzekoak baliatzen zirela garai hartan.

### **Euskara eskasa edo kalitate txarrekoa**

Euskalgintzan diharduten pertsona askori entzun diogu gaur egun erabiltzen den euskara oso kalitate eskasekoa dela. Iristen zaigun mezu nagusia da euskaldun gehienak erdaraz pentsatzen eta hitz egiten ohi-tuak daudela eta sarri itzulpen-sistema erabiliz mintzo direla euskaraz. Beste kopuru nabarmen batek, euskaraz pentsatu arren, erdaraz hitz egiteko joera dela eta, euskara kamutsa, pobrea erabiltzen du. Sarri, komunikazioa erakargarria egin nahian erdarakadetara edo zuzenean erdarara jotzen dute. Gutxi dira beraien komunikazioa euskaratik euskara, beste hizkuntzen injerentziarik gabe lantzen dutenak. Irizpidea hori bada, logikoa da kalitate txarraz hitz egitea. Naturaltasuna ardatza bada, guri ere izugarri aberatsa iruditzen zaigu gure etxeko zaharren euskara. Gozatu ederra hartzen dugu beraiek hika nola erabiltzen duten entzunda. Kontu hori aipatu izan diegunean beraien gurasoak aipatzen dizkigute, gure aiton-amonak alegia. Haien euskara hitz egiteko modua goresten dute. Gu ere gogoratzen dugun apurra aintzat hartuz gero, ados gaude baieztapen horrekin. Gure aiton-amonak asko euskara eder eta aberatsean mintzo ziren, baina bazuten abantaila bat: ez zuten aukeratu behar. Hitz egiten zuten euskara hitz egiten zekiten hizkuntza bakarra zen. Elebakarrak ziren. Bere komunikazioa antolatzeke gramatika bakarra zeukaten, jakina, bere bizitza bideratzeko baliagarri zi-

tzaiena. Aitzitik, gaur egun zein duela hogeita hamar urte, gure komunikazio mota aukeratzeko gramatika bi edo gehiago ditugu. Ondorioz, konparatu egin dezakegu, eta konparaziotik dator hain zuzen kalitatearen neurtzea.

Gaur egun, oro har, euskaldun gazteak harreman sare oso zabala dauka. Ia kasu gehienetan sare horretan hizkuntza hegemonikoa beste bat izango da, dela frantsesa, dela gaztelania edo ingelesa. Horretaz aparte, bere harremanetan mota guztietako hiztunak aurkitu ahal izango ditu: euskaldun berriak, euskaldun zahar alfabetatu gabeak, beste euskalkietako euskaldunak eta abar. Horrekin guztiarekin esan nahi duguna zera da: konparagarriak al dira euskaldun elebakarraren eta euskaldun eleaniztunaren euskara kalitateak? Afera horren gainean oso interesgarri deritzogu Antonio Zavalak, 1986an egin zioten elkarrizketa batean esan zuena:

Hara, gu erdarak kutsatuta gaude gogoan erdara daukagu erroraino sartuta. Beharbada euskara hutsez mintzatu eta pentsatzen zutenen urritze hori da ni gehien kezkatzen nauena. Uztapideren liburua irakurri ahala, aise konturatuko zara hura euskaraz pentsatu eta mamitua dagoela, hartu gaurko euskal egunkari bat eskuartearen eta somatuko diozu halako euskarazko sasi jazkera, baina azpitik erdara. (Antonio Zavala, *Argia* 1986, 1.098 zbk.)

Zavalaren hitzek erakusten dute orain dela hogeita hamar urte ere euskara txarra erabiltzen zen ustea zegoela, erdaratik eratorria zena. Nola diren gauzak, Uztapidek berak 1982an egin zioten elkarrizketa batean zera esaten du:

Bai, bai. Euskarak indarra duen bitartean beti izango dira bertsolariak. Baina berezkoak behar dute izan. Dударik ez egin. Zuek ez duzue uste, baina euskara atzeraka doa. Eta euskara atzeraka doan bezala bertsolaritza ere atzeraka joango da. Nola edo hala kantatuko dira baina... oraingo euskaldun askok ez du bertso onik aterako. (Uztapide, *Argia* 1982, 935 zbk.)

Ados egon gintezke Uztapidek euskara ederrean mintzo zela diotenekin. Ez dakigu elebakarra zen, baina lasai asko esango genuke gaztelaniaz baino euskaraz askoz hobeto moldatuko zela. Zestoako bertsolari txapeldunari egindako elkarrizketan, beste kontu batek piztu zigun arreta. Esaten zuen bertsolari onak “verboa” ondo erabili behar zuela. Arraroa egin zitzaigun **aditza** ez erabiltzea, termino hori XVIII. mendetik XX. mendera arte euskal idazle klasikoek erabili izan baitute: Manuel Larramendi, Maurice Harriet, Jean Duvoisin, Jean Hiribarren, Pierre Lhande (Orotariko Euskal Hiztegia, 2016-12-27).

---

**Gaur egun,  
euskaldun  
gazteak  
harreman sare  
oso zabala  
dauka. Ia kasu  
gehienetan sare  
horretan  
hizkuntza  
hegemonikoa  
beste bat izango  
da, dela  
frantsesa, dela  
gaztelania edo  
ingelesa.  
Horretaz aparte,  
bere  
harremanetan  
mota guztietako  
hiztunak aurkitu  
ahal izango ditu:  
euskaldun  
berriak,  
euskaldun zahar  
alfabetatu  
gabeak, beste  
euskalkietako  
euskaldunak eta  
abar.  
Konparagarriak  
al dira euskaldun  
elebakarraren eta  
euskaldun  
eleaniztunaren  
euskara  
kalitateak?**

Pasarte horiekin konparazioaren zailtasuna eta injustizia nabarmendu nahi ditugu. Zer esango genuke ikastolako haurrak euskal *verbo*a zaila egiten zaiola esango baligu. Azpimarratu nahi dugun bigarren ideia da kalitatearekiko kezka aspalditik datorrela. Irakur ditzagun hautatu ditugun beste pasarte hauek:

Arin jakin behar da gaztelera, argot guztian, esamolde pilo batekin... eta euskara bitartean pobretzen doa piskanaka piskanaka (Lluis Arazil, *Argia* 1982, 960 zbk.)

Begira, lehengoak hobeki mintzo ziren euskaraz. Oraingo gazteak arinago hitz egiten dute. Baina euskalduntasuna sendoago senditzen dute. Oraingo euskalduna politizatuagoa da (Piarres Larzabal, *Argia* 1983, 991 zbk.)

Bai, bai duda barik. Bai, baina behar bada horrek ez dauka zerikusia euskara batuaz bakarrik. Gure ikastaroetara jendeak gero eta euskara txarragoa dakar, gizartea gero eta erdaldunagoa delako, gero eta kaleko euskaldun gehiago datorrelako, eta horiek ezin dute ekarri euskera onik (Adolfo Arejita, *Argia* 1987, 1.171 zbk.)

Euskara indartzen ez baduk ez zegok zer eginik. Gurasoek erdera indartzen diate. Andereinoak ere titulu bila ari dituk euskara traketsen. Eta umeak biengandik iheska (Lazkao Txiki, *Argia* 1987, 1.170 zbk.)

Gauza jakina da. 80 urteetarako, euskaldun elebakarrak ia desagertuak ziren eta euskal hiztuna erdal itsasoko arraina bailitza zebilen. Oraindik Globalizazioa eta Interneta hedatu gabe zeuden, eta halaber, Estatu-nazioek bere goian jarraitzen zuten. Erdara nagusi zen arlo gehienetan eta euskal administrazioa, aldiz, bere hastapenetan. Testuinguru horrek euskalduna lehiatzera eta hautatzera zeraman, eta guri egoera horrek konparaziorako bidea ematen digu. Konparatzerakoan, gainera, nahiko injustuak izaten gara, alde batetik, erdaldun bati eskatzen ez zaion zuzentasuna eskatzen zaiolako euskaldunari; beste alde batetik, hizkuntza minorizatua jaso duen euskaldun hiritarra eta bere kosmobisioa euskaraz garatzen zuen baserritarra maila berean jartzen ari garelako.

## **Euskara eta politika. Abertzaleen epelkeria**

Nabaria da 80 urteetako giro politikoa ez dela gaur egun duguna. Bistan da, eta ez gara horretan luzatuko, besteak beste ez baita azterketa honen gaia. Hala ere, gaur egun eta orain dela hamarkada batzuk hizkuntza eta politikaren arteko korrelazio bera egiten da. Alegia, abertzaletasuna

eta euskaltzaletasuna ez doazela norabide beretik. Azken urteetan hainbat eragileri entzun izan diegu esaten herri hau oso abertzalea bai, baina ez dela batere euskaltzalea. Gure irudiko, euskaltzalea bada, ez ostera euskalduna. Gaur egun entzuten ari diren mezu horiek ez ditugu aztertu, nortzuk jaurti dituzten, zer testuingurutan eta abar. Bat-batean, Pako Aristiren, Koldo Izagirreren eta Bernardo Atxagaren izenak datozkigu burura. Badira nor. Horiek esaten dituztenak gauza berriak al dira? Zer esaten zen 1980ko urteetan? Ikus ditzagun adibide batzuk:

Franco hil zen. Denborarekin, Euskal Herrian bizi ziren batzu boterearen parte txiki baten jabe egin ziren, nolabait batzuren esperantzak handiagotuz. Pertsona haiek euskara defendituko eta indartuko zutela uste genuen, neurri batez, horrela gure burrukarako laguntza berria etorriko zelakoan. Bai zera! Nola izan ginen horren inozoak? Ez ote ginen konturatzen, burrukarako nahirik ez zuten pertsonengan ezin zitekeela kultur burrukarako laguntza handirik espero? Berandu bada ere, ea nozpait konturatzen garen! (...) erradikalak izateaz beste erremediorik ez dugu; bestela, gureak, egin du. (Joxe Ramon Etxebarria, *Argia* 1982, 930 zbk.)

Beste gauza batzuekin batera, kontraesan hau behintzat ikusten dut: nola daitekeen teorian hain abertzalea eta hain euskaltzalea den herri batean euskararekiko hain ardura gutxi egotea, edo zehazkiago esanda, euskarak erdararengandik jasotzen duen erasoari kontra egiteko ardura hain txikia izatea. (Ibon Sarasola, *Argia* 1986, 1.118 zbk.)

Gutxi asko duzu zuk esaten didazu Vasuencearen legeari dagokionez. Bai, egia da, nik gutxi aski dut. Baina, nik baino gutxiagorekin edo deusezarekin aski nau. (...) Hor dago legea; nik euskal abertzalegoarentzat ere “eskuzabalegia” dela esan dut, eta inork besterik erakutsiko didan zai geratzen naiz. Oraindik ez dut behintzat lege hori gaitzuko lukeen ainako euskaltzaletasunik nabaritu inon. (Patziku Perurena, *Argia* 1987, 1.166 zbk.)

Lehen eta orain, euskaldunen euskaltzaletasun eza edo euskaltzaleen euskalduntasun gabezia azpimarratzen da. Horretaz landa, aise atera dugu ondorioa: 80 urteetan euskararekiko jarrera eta hautu politikoa askoz gardenagoa zen. Adibide bat: Aztertu ditugun urte horietan ezezagun zaizkigun zenbait pertsonaren (batzuk ezizenez sinatzen zuten) testuak irakurri ditugu. Kasu gehienetan, oso nabarmena zen beraien aukera politikoa; alegia, EAJkoak, HBkoak, EEkoak edo alderdi estatalistetakoak ziren. Aitzitik, 2016ko otsailean, Euskaltzaindiak antolatuta, Euskara Biziberritzeko jardunaldia burutu zen. Bertan, ordura arte ezagutzen ez genituen zenbait euskaltzaleren gogoetak entzuteko parada izan

---

**Azken urteetan hainbat eragileri entzun izan diegu esaten herri hau oso abertzalea bai, baina ez dela batere euskaltzalea. Gure irudiko, euskaltzalea bada, ez ostera euskalduna.**

**Ematen du 80 urteetan errealitatea zeharo desberdina zela, alegia, jendartearen konpromiso sozial eta kolektiboa izugarria zela.**

**Alta, ez dakigu konpromiso hori hainbesterako zen. Gure aburuz sektore batzuetan bazegoen elkarlanerako borondate irmoa, tamalez, sektore hori gutxiengoa zela esango genuke.**

genuen. Ez genuke jakingo esaten zer alderdi politikotakoak ziren, eta apustua egin beharko bagenu, tamainan, dirutzarik arriskuan jarri gabe.

### **Militantismoa beherantz. Ilusioa falta da.**

Bada militante hitza maite ez duen jende andana. Guk ere gehiegi ez. Hala ere, oraindik orain, zenbait kontzeptu azaltzeko oso baliagarria suertatzen da. Beraz, irakurleak sobera ongi ulertuko duen esperoan, orain eta hurrengo orrialdeetan ere hitz hau erabiliko dugu.

Proiektuaren hasieran esan dugu indibidualizazio aroan bizi garela. Bizimodu komunitarioak indarra galdu du eta bizimodu propioa gailendu da. Portaerak sinismenean oinarritzetik kalkuluaren arabera erabakitzen pasatu gara (Aierdi, 2016). Ematen du 80 urteetan errealitatea zeharo desberdina zela, alegia, jendartearen konpromiso sozial eta kolektiboa izugarria zela. Irakur ditzagun berriki horren gainean argitaratu diren iritzi batzuk:

Normalizatzen ez bada, galtzen da. Ez dago mantentzerik. Frankismo bukaeran gogo eta kontzientzia garbia zegoen: D eredua sortu zen, hizkuntzaren batasuna... Izugarri beharrezko ziren tresnak orduan sortu ziren. Ilusio handia zegoen. (Xamar, Goikoetxea 2016: 189)

Gaur egun ere militantzia maila handia dago, baina 1980ko hamarkadarekin zerikusia ez duen militantzia da. (Sergio Iribarren, Goikoetxea 2016: 156)

Alta, ez dakigu konpromiso hori hainbesterako zen. Gure aburuz sektore batzuetan bazegoen elkarlanerako borondate irmoa, tamalez, sektore hori gutxiengoa zela esango genuke. Badira horretaz ohartarazten gaituzten ahotsak ere:

Adostasun handia egon zela esaten da, baina kontuz hartzekoa da. Atzera begiratzean beti dago arriskua mitifikazio bat egiteko (Joxean Amundarain, Goikoetxea 2016: 181)

Bat gatoz Amundarainekin. Mitifikazioaren arriskua beti dago hor, batik batik bat garai hartako errealitatea gaur eguneko begiekin ikusten dugulako. Adibide bat jartze aldera, errealitate hura bizi zuenean gaztea zena objektiboa izan daiteke? baldin eta, orain, gertaera hura aztertze orduan jada aitona baldin bada. Zer esango dugu, aztertu behar duen helduak errealitate hori ez bazuen bizi, kontatu diotenaz hausnartzen ari bada. Azter dezagun, beraz, orduko errealitatea orduko begiekin:

Militantismo hau gabe ez dakigu zein izango litzatekeen gaur euskararen egoera (...). Badirudi gaurregun militantismo hau galtzeko zorian gaudela. Plangintzen

garaia heldu den honetan (...) ez al gaude euskararen militantismoa galtzeko zorian? (Joxe Joan Txabarriren aipuaren erreferentzia, *Argia* 1982, 921 zbk.)

Gizarte aurreratu eta kontsumista honetan herriak ez luke instituzioen laguntza gabe ere euskara salbatuko. Denok alkar, herriak eta instituzioek, lan egin behar dugu, gogor gainera, euskarak, denon laguntza behar du, egoera larrian aurkitzen delako (Txabi Goiri, *Argia* 1982, 959 zbk.)

Zeren eta, euskarari egun, erabilpena eta dinamika, biak falta zaizkielakoan nago. Tremendista izan gabe. Zein urruti dauden gure hizkuntzaren gizarte-normalizaziotik, eta garai batetan amestu genuen Euskal Herri euskaldundu hartatik! Akabo optimismoak... (Joan Mari Torrealda, *Argia* 1982, 939 zbk.)

Laburpen gisa, ez du ematen garai hartan ere dinamismo, konpromiso eta ilusio handiegirik zegoenik. Orduan ere zailtasunak oso agerikoak ziren, baina gaur egun bezala, orduan ere bidea egin beharra nahitaezkoa ikusten zen. Modu prekarioan geunden eta modu prekarioan jarraitzen dugu. Aitzitik, prekaritate eta zailtasun horiek guztiak ez ligukete pesimismoaren antzutasunera eramane behar. Egia da; lan asko egin da, edo batzuek behintzat lan asko egin dute, eta euskara antzeko egoeran dago. Hizkuntza ez da normalizatu, eta ez du ematen epe ertainean normalizatuko denik. Alegia, modu prekarioan jarraituko dugu. Beraz, egindako lana ez da ezertarako izan? Ezta hurrik eman ere! Azken hamarkada hauek oso zailak izan dira euskararentzat. Urte horiek guztiak pasa ostean, gauden moduan egotea oso baloratzekoa iruditzen zaigu. Dena edo ia dena kontra izanda ere, eutsi egin diogula esango genuke, edo Mitxelenak esan zuen bezala, katea ez dela eten. Hurrengo puntuan sakonduko dugu gai honetan.

## 5. ONDORIOAK: NOLA GEUNDEN? NOLA GAUDE? NOLA EGONGO GARA?

**I** Lan honen bitartez, nola geunden eta nola gauden azaltzen saiatu gara. Horretarako, 1980 urteetako hizkuntza normalizazioaren diskurtsoa bere testuinguruan landu dugu. Ondorio gisa, behin baino gehiagotan esan dugu antzeko diskurtsoak sumatzen ditugula. Are gehiago, ematen du hurrengo hamarkadetan ere bide beretik jarraitu beharko dugula. Gure hausnarketa euskararen alorrean erreferente diren ikerlariek esandakoekin kontrastatu dugu. Esango genuke, ñabardurak ñabardura, denek norabide jakin bat markatzen dutela. Beraz, hurrengo zutabeetan aditu horiek erakutsitako bidea jarraitzen saiatuko gara eta bide horri jarraitzearekin batera euskararen etorkizuna irudikatzeko ahalegina

---

**Orduan ere zailtasunak oso agerikoak ziren, baina gaur egun bezala, orduan ere bidea egin beharra nahitaezkoa ikusten zen. Modu prekarioan geunden eta modu prekarioan jarraitzen dugu. Aitzitik, prekaritate eta zailtasun horiek guztiak ez ligukete pesimismoaren antzutasunera eramane behar.**



**Etorkizunari  
buru hiru  
eszenategi  
posible ikusten  
ditu: lehena,  
euskara  
hegemonikoa  
izan eta erdarak  
gutxituz joatea.  
Bigarrena,  
erdarek beraien  
hegemonia  
zeharo inposatu  
eta euskara  
galtzea.  
Hirugarrena,  
euskara eta  
erdarek espazio  
sozio-  
funtzionalak  
konpartitzea.**

egingo dugu.

Euskararen geroari buruz Mikel Zalbide euskaltzain eta ikerlariak esandakoak oso egokiak iruditzen zaizkigu. Zalbidek Joshua Fishman soziolinguista judu-estatubatuarrarengandik hainbat teoria jaso eta gurera ekarri ditu. Etorkizunari buru hiru eszenategi posible ikusten ditu: lehena, euskara hegemonikoa izan eta erdarak gutxituz joatea. Bigarrena, erdarek beraien hegemonia zeharo inposatu eta euskara galtzea. Hirugarrena, euskara eta erdarek espazio sozio-funtzionalak konpartitzea.

Zalbideri lehenengo hipotesia irrealia iruditzen zaio. Bigarrenak, esan gabe doa, lan-hipotesi gisa ez dio balio. Beraz, hirugarrenean sakondu behar dela uste du. Alegia, diglosiaren jatorrizko adiera berreskuratzen du hizkuntzen arteko oreka berria proposatzeko. Jatorrizkoa diogu, azkenengo urteetan eta soziolinguistika kataluniarraren eraginez diglosiak beste zentzu bat hartu duelako gurean. Diglosia elebitasun partzial eta desorekatu gisa ulertu izan dugu; hots, hizkuntza nagusiaren eta menpekoaren halamoduzko bizikidetzak gisa. Zalbidek dio diglosia beste gauza bat dela, hain zuzen ere, bi hizkuntza lurralde jakin batean modu orekatu eta iraunkorrean erabiltzea. Hizkuntza batek eremu fisiko eta sozio-funtzional jakin batzuk hartzen ditu eta, besteak, beste batzuk. Horrelakoa izan zen, adibidez, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa XVI-XIX mende bitartean. Euskaraz, herrietako nekazari, arrantzale, artisau eta abarrek hitz egiten zuten. Aldiz, erdara nagusi zen merkataritza eta administrazio-jardueratan. Euskara, ia bere osotasunean ahozko hizkuntza zen; erdarak, batez ere, idatzizko hizkuntzak ziren.

Zalbidek esango digu errealitate hura gaur egunera ekartzea oso zaila dela. Garai hartako Euskal Herriak zerikusi gutxi dauka gaur eguneko Euskal Herri globalizatu, hiritartu eta interkonektatuarekin. Onartzen du, halaber, diglosiatik baino, gaur egun daukagun hizkuntza errealitateak elebitasun partzial-mugikorretik gehiago daukala. Errealitate hori erabat desorekatua da eta ez dio euskarari bere geroa bermatzen uzten. Zalbidek zaila ikusten du diglosia orekatu eta iraunkor batera iristea, baina ez ezinezkoa. Uste du badaudela horretarako aukerak.

Joxe Manuel Odriozola soziolinguistak Zalbidek markatutako bidea estimatzen du, nahiz eta ez zaion egingarria iruditzen. Ados egon gintezke edo ez, baina Odriozolari ez zaio koherentziarik falta. Zentzu horretan argigarria da bretoiera hizkuntzaren etorkizunari buruz esaten zuena:

Bretainia, kapitalismoaren oihartzunak zeharkakoak eta erabatekoak ez ziren bitartean, bretoieradun izaten jarraitu zuen. “Aurrerapenak” ordea, kontradikzio

gaindiezin batetan murgildu zuen bertako hiztunlengoa: produkzio moduen aldatuntza eta garapenak hizkuntzaz aldatzea zekarren berarekin “atzerapen” gorrian geratuko ez baziren. (Odriozola 1987)

Azter dezagun euskararen etorkizun diglosikoaz zer esaten duen:

Zergatik ez da posible egungo Euskal Herriaren inolako konpartimentazio-politikarik euskaldungoari dagokionez? Euskaldungoak jadanik galdua duelako orain dela hamarkada batzuk arte eskualde batzuetan erroturik egon den euskarazko egitura sozioekonomikoaren izaera autonomo erlatiboa. Oinarri sozioekonomiko autonomo horrek ahalbideratu izan du euskal komunitate diglosikoaren iraupena (Odriozola, *Bat* aldizkaria 2011: 221)

Azpirarra gurea da, intentzio osoaz egina, oso nabarmen adierazten baitu euskara gozo senti zitekeen egitura sozio-ekonomiko-demografikoa aspaldi irauli zela. Xabier Isasi irakasleak 1960 hamarkadan datatzen du aipatutako eraldaketa. Haren ustez, ez da kasualitatea urte horietan euskararen batasuna gorpuztea, ikastolak abian jartzea, helduen alfabetatzeari ekitea, euskal mugimendu kulturalaren suspertzea eta abar. Nolabait esateko, Isasik euskara galtzeko arriskuaren aurrean sortutako erantzun-mugimendu gisa ulertzen du.

Horrekin guztiarekin zera esan nahi dugu: ia dena aurka izanda ere, azken bost hamarkadetan hizkuntzari eutsi egin zaiola, berriro ere Mitxelena esaldia gogoan, katea ez dela eten. Odriozolak ongi esan bezala, kapitalismoaren garapenak bretoiera ondoratu zuen. Modu gradualagoan izan bada ere, gauza bera gertatu zen irlanderekin. Beste hizkuntza batzuetan ez dugu asko sakondu, baina antzeko fenomenoak gertatu izan direlakoan gaude. Aitzitik, euskararen botila zergatik ez da hustu, zergatik oraindik erdi beteta ikusten dugu? Erantzun bakarra bururatzen zaigu: Historian zehar gure lurralde honek bizi izan dituen egoera sozio-politiko desberdinetan zehar, zorionez, euskaldun eta euskaltzale kopuru aipagarri batek, sasi guztien gaintetik eta hodei guztien azpitik, bere hizkuntzari eutsi nahi izan diolako. Jon Sarasuaren eta Julen Arexolaleibaren iritziz hizkuntza gutxitua berreskuratu nahi izan duen beste inongo komunitateetan ez delako eman euskal komunitatean adinako herri-ekimenik. Uste dugu etorkizunean ere bide beretik jarraitzea beste erremediorik ez dugula. Euskaltzale militante aktibo ugari beharko ditugu, zenbat eta gehiago hobe.

Azter ditzagun orain Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailordetzak euskararen ezagutzaren gainean 2036 urterako egindako iragarpenak:

---

**Xabier Isasi  
irakasleak 1960  
hamarkadan  
datatzen du  
aipatutako  
eraldaketa.  
Haren ustez, ez  
da kasualitatea  
urte horietan  
euskararen  
batasuna  
gorpuztea,  
ikastolak abian  
jartzea, helduen  
alfabetatzeari  
ekitea, euskal  
mugimendu  
kulturalaren  
suspertzea eta  
abar. Nolabait  
esateko, Isasik  
euskara galtzeko  
arriskuaren  
aurrean  
sortutako  
erantzun-  
mugimendu gisa  
ulertzen du.**

**5. taula. Euskararen ezagutzaren gaineko proiektzioa.**

2036 URTEAN	EUSKALDUNAK	EUSKALDUN HARTZAILEAK	ERDALDUNAK
< 25 urte	% 83,40	% 9,3	% 7,3
25 – 49 urte	% 59,50	% 19,4	% 21,1
GUZTIRA	% 49,5	% 16,7	% 33,8

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Aurrikuspen horiek egiteko EUSTAT erakundea baliatu dute, eta hainbat aldagai sakon aztertu ondoren aurkeztu dituzte emaitzak. Beraz, gure iritziz ez gaude asmoen aldarrikapen baten aurrean, ikerketa serio baten aurrean baizik. Datu horiek ikusita askok esango dute ezagutzak gora egingo duela eta erabilerak ez horrenbeste, eta hor dagoela gakoa. Erabili ezean, euskara jende askok ezagutu bai, baina funtzio sinboliko-folklorikoa beteko duen hizkuntza baizik ez dela izango.

Azter ditzagun erabileraren datuak. Horretarako bi iturri arakatu ditugu, bata Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailordetza, eta bestea, Soziolinguistika Klusterrak egindako kale-neurketak. Datu-iturri horiek erabiltzen dituzten lurralde esparruak eta neurtzeko logikak diferenteak dira. Alta, biak ala biak adierazgarriak iruditzen zaizkigu:

**6. taula. EUSKARAREN ERABILERA (EAE).**

	1991	2016
Euskara erdara beste edo gehiago	% 15,70	% 20,5
Euskara erdara baino gutxiago	% 7	% 10,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza (Euskal Autonomia Erkidegoko datuak).

7. taula. EUSKARAREN ERABILERA (EH).

	%
1989	% 10,80
1993	% 11,80
1997	% 13
2001	% 13,3
2006	% 13,7
2011	% 13,3

Iturria: Soziolingustika Klusterra (Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1989 - 2011).

Soziolingustika Klusterrak emandako datuak sakondu ahala beste ondorio nagusi bi atera ditugu:

1. Lurraldetasunaren ikuspegia: Gipuzkoan gora doa erabilera. Bizkaian, aztertu diren lehen urteetan gora, nahiz eta azken urteetan beherakadaxoa nabari den. Araban mantendu egin da eta Nafarroan (2016ko datuek joera-aldaketa erakusten badute ere) eta Ipar Euskal Herrian jaitsiera txiki bat izan da.
2. Adinaren ikuspegia. Datu eztaba daezina da: haurren, gazteen eta helduen euskararen erabilerak gora egin du nabarmen. Aitzitik, adinekoen erabilerak berak egin du, hori ere nabarmen.

Bestalde, hainbat udalerritan kale neurketa propioak egin dituzte. Bertan bildutako datuak aztertu eta oso datu interesgarriak aurkeztu dizkigu Olatz Altunak (Altuna, 2016). Laburbilduz, euskararen ezagutzak eta erabilerak modu nahiko linealean jokatzen du. Hala ere, proportzio aintzat hartuz, zenbat eta euskaldun gehiago euskara maizago erabiliko da. Alegia, euskaldunak % 50era iristen ez diren udalerrietan, gehienez ere, euskaldun guztien heren batek erabiliko du sarri euskara. Alderantziz, % 50etik gora direnean, gutxienez, euskaldun oroien erdiak mintzatuko dira.

Guk uste adinaren aldagaiak joera argia erakusten duela. Duela hamar-kada batzuk zaharrak ziren euskaldunik petoenak. Horiek hiltzen joan dira eta orain zaharrak direnak, baserritik urrun, euskaraz ikasteko aukerarik izan ez dutenak, euskara gutxien dakitenak dira.

Datu horiek guztiak baikortasunerantz lerra gaitzakete. Ez litzateke ona izango. Euskararen bilakaeran hainbat faktorek eragingo dute eta guzti-guztiak zaindu eta aztertu behar dira. Hala ere, zenbait ideia azpimarratuz bukatu nahi genuke saio txo hau.

**Laburbilduz, euskararen ezagutzak eta erabilerak modu nahiko linealean jokatzen du. Hala ere, proportzio aintzat hartuz, zenbat eta euskaldun gehiago euskara maizago erabiliko da. Euskaldunak %50era iristen ez diren udalerrietan, gehienez ere, euskaldun guztien heren batek erabiliko du sarri euskara. Alderantziz, %50etik gora direnean, gutxienez, euskaldun oroien erdiak mintzatuko dira.**

---

**Helburuak  
birdefinitu  
beharko  
genituzke.**

**Helburu  
egingarriak  
finkatu behar  
ditugu: kopuru  
jakin batzuetan  
euskararen  
ezagutzak eta  
erabilerak gora  
egitea.**

**Euskaldun  
euskaltzaleak du  
giltza.**

- Ezagutzaren ikuspegitik, gure ustez oso litekeena da euskaraz ezer ez dakien haurra eta gaztea etorkizunean gutxiengo nabarmenean egotea. Datu baikorra, inori ez baitzaio gutxiengo izatea gustatzen.
- Helburuak birdefinitu beharko genituzke. Hemendik hogeita hamar urtera ezin gaitezke euskara nagusi ez dela eta ileetatik tiraka ibili. Helburu egingarriak finkatu behar ditugu: kopuru jakin batzuetan euskararen ezagutzak eta erabilerak gora egitea. Helburu hori erdiesten badugu, aldapa ez da hain pikua izango. Beste era batera esanda, botila erdi hutsik edo erdi beteta ikusi ahal izango bada ere, neurtuz gero, erdia baino gehiago betea dagoela esateko moduan egon beharko ginatete. Alegia, zuloak hor iraungo du, baina txikiagoa dela egiaztatu beharko genuke.
- Berriro diogu, euskaldun euskaltzaleak du giltza. Zenbat eta gehiago izan hobe. Euskaltzale horietatik gutxiengoa izango dira euskaraz modu naturalean, erdara baino erraztasun handiagoarekin mintzatuko direnak. Babes ditzagun. Euskaraz osorik bizitzeko abagunea duten horiek jarrai dezatela berdin bizitzen. Har bitez horretarako hartu beharreko neurriak. Alta euskaltzale gehienok, ziurrenik, erdaraz euskaraz bezainbeste trebezia edo gehiago izango dugu. Gure hautua, politikoa, kontzientea, militantea, artifiziala izango da. Beste erremediorik ez dugu. Ziur gara militantearen hautu horiek hain militantea ez den euskara zalea ere erakarriko duela, nolabait esateko, imanaren efektua egin dezakeela. Dinamika horretan sakonduko bagenu euskaratik urrun bizi direnak ere erakartzeko aukera izango genuke. Arestian esan dugu gutxiengo izatea ez duela inork atsegin. Bestalde, hasieran oso artifizialak izanda soilik iritsiko gara euskararen alorrean naturaltasunez jokatu ahal izatera. Horretan sakonduz, guk hautu artifizial terminoarekin izendatzen dugun ideia askoz zuzenago azaldu du Xabier Aierdi irakasleak. Aierdik ikuspegi soziologikoago batetik lantzen du eta *kalkulu* terminoaz hitz egiten digu:

Adin eta belaunaldi kontuek adierazten digute euskara modu mekanikoan erabiltzen dutenak desagertzen doazela eta horien ordeztatu askok euskara ikasia dakarte eta modu erreflexiboan praktikatzeko dute. Soziologian elkargotik (*gemeinschaft*) gizartera (*gesellschaft*) doan jauzia da, komunitatetik gizarte bakunera, afektutik kalkulura. Automatismoen ordeztatu kalkulua, eta nahitaez, honekin batera ekonomia kognitiboa, erabiliko da momentu bakoitzean errazena egiten den hizkuntza erabiltzeko. Gehienetan, oraindik ere tarte luzean, ezinbestez gaztelera. Kalkuluaren izaera maltzurra baztertu beharreko tesia da. Ez da maltzurkeria; baldintza soziologikoa da kalkulua. (Aierdi 2016 : 224).

Bukatzeko, azken hitza edo oharra. Argi izan dezagun bidea malkartsua izango dela. Aurrez esan dugun moduan prekarioan jarraituko dugu, eta ziurrenik prekaritatea baino ez dugu ezagutuko. Hala ere, ez da komeni gauden baino larriago azaleratzea. Lionel Joly soziolinguistak esango digu gaixo bati (euskara) gerta dakioken gauzarik larriena gaixo ez dagoela uste izatea da. Hori egia denez, ez da ona gaixoa dagoen baino larriago sentitzea, horrek sendatzea zailtzen baitu. Horren adibide argi gisa okzitaniera aipatzen du. Adituek hain larri zegoela esaten zuten, non hiztunak piztu beharrean, hizkuntzaren desagertzea etsipenez onartzen joan ziren (Joly 2016). Ez gaunde hain gaizki. Orain dela hogeita hamar urte baino apur bat hobeto gaudela esango genuke, eta are gehiago, norabide egokian lan eginez geroz eta hobeto egongo garelakoan gaude. Dena dugu irabazteko. ●

## BIBLIOGRAFIA

- AIERDI, Xabier, 2016, "Mintzajardunaren azken urteetako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marjinalak" *BAT* Soziolinguistika aldizkaria, 100 zbk. 2016(3). 224 or.
- ALTUNA, Olatz, 2016, Mintzajardunaren azken urteetako bilakaera. Aurrera begirako erronkak" *BAT* Soziolinguistika aldizkaria, 100 zbk. 2016(3). 193-208 or.
- ARGIA, 1982, zenbaki guztiak
- 1983, zenbaki guztiak
  - 1986, zenbaki guztiak
  - 1987, zenbaki guztiak
- BAT* Soziolinguistika aldizkaria, 2011, "Diglosiaren inguruan" 79-80 zbk. 2011(2-3).
- BAT* Soziolinguistika aldizkaria, 2016, "Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) I: TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK", 99 ZBK. 2016 (2).
- BAT* Soziolinguistika aldizkaria, 2016, "Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) II: Erabilera", 100 zbk. 2016 (3).
- ETXEBARRIA, Garikoitz, 2016, *Euskara ibazteko bidea*. Berria, Elkarlanean, Jakin.
- EUSKALTZAINDIA, 2016, Orotariko Euskal Hiztegia ([www.euskaltzaindia.eus/oeh](http://www.euskaltzaindia.eus/oeh)). 2016-12-28an egindako kontsulta.
- EUSKO JAURLARITZA. Hizkuntza Politika Sailordetza, 2016, "Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo `dabilen harriari etzaika goroldiorik lotzen'" txostena.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2016, "VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa". Txostena: 2016-10-14.

---

***Ez gaunde hain gaizki. Orain dela hogeita hamar urte baino apur bat hobeto gaudela esango genuke, eta are gehiago, norabide egokian lan eginez gero hobeto egongo garelakoan gaude.***